

«Pesimismo irribarretsua» darie Aritz Gorrotxategiren ipuinei


'Ahazten diren gauzak' publikatu du, bederatzi narrazio dakartzan liburua, orain bi urteko 'Zer egingo dugu orain opariekin?' haren B aldea

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Aritz Gorrotxategik (Donostia, 1975) 'Ahazten diren gauzak' eman du argitara, bederatzi ipuineko bilduma. Egileak adierazi duenez, «memoriaren presentzia errepikakorra» da liburuaren ezaugarri nabarmenetako bat.

Aritz Gorrotxategiren hamaikagarren liburua da hau. «Futboleko terminologia erabilita, esan daiteke osatu dudala alineazio bat», esan du. Horietako batzuk ipuin bildumak dira, baina nobela eta poesia ere jorratu izan ditu.

«Ipuin-bilduma hau eta egilearen aurrekoa, 2016ko 'Zer egingo dugu orain opariekin?', sormen prozesu beretik sortuak dira, enbor beretik –adierazi du Gorrotxategik–. Liburuak eta biniloak alderatuz gero, lasai esan daiteke 'Ahazten diren gauzak' aurreko ipuin-bildumaren B aldea dela, jarraipen moduko bat. Orduko hartan ukitu soziala eta kri-



Aritz Gorrotxategi, atzo, liburu berria eskuetan duela. :: AYGÜES

sia ziren nagusi, giza harremanak, denboraren herdoila... Honako honetan ere ezaugarri horiek errepikatzen dira neurri handi batean. Egunerokoan hizpide izaten ditugun hainbat gai jorratzen ditut: lanaren mundua, sexu-jazarpaena,

etorkinen gaia... Halaber, gai uni-bertsalagoak ere badira: heriotza, eromena, bakardadea, memoria historikoa...».

Idazkera argiz eta estilo minimalistaz idatzitako ipuinak dira. «Garai batean, ustea zen prosa ilu-

nak beste sakontasun bat zeukala; niri, berriz, iluntasuna ez zait gus-tatzen, eta estilo argi eta zuzen ba-ten bidez istorio sakonak kontatu daitezke, hor ditugu 'Mamame Bo-vary' eta 'Ana Karenina', adibidez».

Bukaera ireki samarra dute. «Gus-tatzen zait idazleari lan hori uztea, istorioaren bukaera irudikatzeko lana». Bestalde, ipuin gehienak «pe-simismo irribarretsua» halako batez blaituak daude», egilearen ustez.

Etorkinei buruzko bi istorio

Ipuin gehienak gure ingurunean ko-katzen dira, baina bildumari izen-burua ematen dion ipuinak, adibi-dez, Kioseko uhartera garamatza. Zehatzago esanda, bi ipuinetan ai-patzen dira emigranteak. Beharba-da, honako liburu honek ukitu goi-belagoa du, aurrekoaren ukitu umo-retsua eta ironikoaren aldean.

Liburuari hasieran ematen dion ipuinean memoriari bu-ruzko tratatu labur bat idaz-ten duen agure bat ezagu-tuko du irakurleak. Euskal gatazkaren gorabeherek ere leku nabarmena dute bilduman, angelu ezberdi-nak bilatzen dituen hur-bilketa baten eskutik. Ba-tetik, kar-tzela giroa hurbil duen bi-kote baten herdoiltze prozesua ager-tuko da. Bestetik, 90eko hamarka-daren erdialdeko girora ere hur-biltzen da ipuin bat, manifestazioen eta kontramantestazioen zurrun-bilora. 'Goroto haut' ipuinak erret-zeari utzi nahi dion langile baten odisea apur bat surrealista kontat-zen du, iraultzaile xeble batzuk

ere protagonistatzat dituen.

'Erabakia' ipuinean, berriz, lanaz eta saileko arduradunaren sexu gehiegikeriez nazkatuta dagoen ema-kume bat da protagonista. Lana uz-teko kementa bilatzen saiatuko da lantokiko igogailuan. 'Senza te' de-lakoan, beste emakume batek bere amaren minbizia ezagutuko du ger-tutik, eztarriah itotzen zaizkion hi-tzak ezin atera. 'Magrebtarra eta aterkia' ipuinean, «agerian geratuko da hemengook etorkinekiko dugun jarrera hipokrita eta epela», esan du idazleak.

Liburuari izenburua ematen dion ipuinak, berriz, 'Ahazten diren gau-zak'-ek, etorkinei lagundu nahi dien Kioseko emakume adindu baten arazoak –eskuin muturreko Egun-senti Urrekara taldearen gorakada dela medio– kontatzen ditu.

Azken narrazioa 'Bada hor nor-bait' da. Izenburuan Cortazarri ke-inu egin dio Gorrotxate-gik. Istorioak berak, berriz, Gogol idazle errusiarrari egiten dio omenaldi.

Oro har, azken sei-zor-tzi urteotan zehar idatzi-tako narrazioak dakartza liburuak. Tartean badira saritutako zenbait ipuin:

'Bada hor nonbait'-ek Ignacio Al-dekoa saria jaso zuen 2015ean; eta 'Burua leihoan jarrita' eta 'Guztiok anaiak gara' Gabriel Arestiren sari-kean akzesita jasotakoak dira...

Aspaldikoena 'Zergatik ez dute ihes egiten elefanteek?' narrazioa da. 'Hegats' aldizkariaren 38. alean kaleratu zuen; orain dela hamaika urte, beraz.

AHAZTEN DIREN GAUZAK
ARITZ GORROTXATEGI

Generoa: Ipuina.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 135.
Prezioa: 15 euro.